



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko uztailaren 31

89. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Cabanillasko Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2013ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Cabanillasko Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2013ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko ekainaren 23an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako Cabanillasko Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2013ko ekitaldikoa, ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2014ko ekainaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Cabanillasko Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2013ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I.** Sarrera (3. or.).
- II.** Cabanillasko Udala (4. or.).
 - II.1. Datu orokorrak (4. or.).
 - II.2. Araubide juridikoa (4. or.).
- III.** Helburuak eta norainokoa (5. or.).
- IV.** Iritzia (6. or.).
 - IV.1. Kontu orokorra (6. or.).
 - IV.2. Legezketasuna (6. or.).
 - IV.3. Finantza-egoera 2012ko abenduaren 31n (6. or.).
- V.** Udalaren 2012ko Kontu Orokorraren laburpena (8. or.).

V.1. Aurrekontu-betetzearen egoera-orria 2012ko ekitaldia (8. or.).

V.2. Aurrekontuaren emaitza. 2012ko ekitaldia (9. or.).

V.3. Diruzaintza-gerakinaren egoera-orria 2012ko abenduaren 31n (9. or.).

V.4. 2012ko abenduaren 31ko egoera-balantzea (10. or.).

V.5. Galeren eta irabazien kontua 2012ko abenduaren 31n (11. or.).

VI. Iruzkina, ondorioak eta gomendioak (11. or.).

VI.1. Alderdi orokorrak (11. or.).

VI.2. Langile-gastuak (12. or.).

VI.3. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak (14. or.).

VI.4. Inbertsioetako gastuak (15. or.).

VI.5. Transferentzien ondoriozko gastuak (16. or.).

VI.6. Zerga bidezko diru-sarrerak (17. or.).

VI.7. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk (18. or.).

VI.8. Bestelako diru-sarrerak (19. or.).

VI.9. Hirigintza (20. or.).

Eranskina: 2008-2012 aldiko aurrekontu-likidazioaren adierazle nagusien bilakaera (21. or.).

Cabanillasko Udalari buruzko 2012ko txostenari aurkeztutako alegazioak (23. or.).

Cabanillasko Udalak aurkeztu dituen alegazioei Kontuen Ganberak eman dien erantzuna (25. or.).

I. SARRERA

2013ko otsailean, Cabanillasko Udaleko idazkariaren idazki bat erregistratu zen Kontuen Ganberan, non *"babes juridikoa eskatzen baitu idazkari, kontu-hartzaile eta diruzain gisa esleituta dauzkan eginkizunak betetzeko"*. Udaleko langileen eta udalbatzako zati batekin izandako gatazkak azaltzen dira, zeinek bere eginkizunak betetzea eragozten dioten, eta Udalean gertatzen ari diren balizko irregulartasunei buruz egin ohi dituen txosten juridikoak eta eragozpen-oharrak eransten ditu.

Idazkari eta kontu-hartzaile moduan esleituta dauzkan eginkizunei buruzko txosten horiek eragin ditu lanerako giro onik ez egotea eta antolamendu-arazoak sortzea, horiek Udalaren jarduera normalean dauzkan eraginekin. Hartara, 2012an eta 2013an, 91 eragozpen-ohar egin ziren, funtsean honako gaiei buruzkoak: aparteko orduak kobratzea, aldi baterako langileak kontratatzea, EIOZaren izapidetzea eta zergen arloko berankortasunari buruzko kudeaketa.

Aurreko dokumentazioa aztertuta, zenbait bilera egin ziren Kontuen Ganberaren eta Udaleko idazkariaren artean, eta gero, Ganberaren eta alkatearen artean, egoeraren errealitatea ezagutze aldera.

Horri dagokionez, aipatu beharra dago idazkari eta kontu-hartzailea denak eragozpen-oharrei buruzko dokumentazio guztia Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentura igorri duela.

Udaleko Osoko Bilkurak, halaber, Kontuen Ganberaren esku-hartzea eskatzen du, *"zenbait gairi buruz aholkua eskatzen aldera, zeren eta ez baitago ados idazkariak emandakoarekin"*, Ganberan 2013ko abenduaren 9an aurkeztutako eskariaren arabera.

Kontuen Ganberak udal horren 2012ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena egitea 2013rako fiskalizazioko urteko programan sartu zuen.

Azterketa lana 2013ko abendutik 2014ko martxora bitarte egin zuten auditoriako bi teknikarik eta auditore batek osatutako taldeak, Kontuen Ganbarako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean Udalarari dagozkion datu orokorrak eta haren araubide juridikoa azaltzen dira eta hirugarrenean txostenaren helburuak eta egindako lanaren norainokoa. Laugarrenean, Udalaren kontu orokorrari buruz daukagun iritzia ematen dugu, eta bosgarrenean Udalaren egoera-orri garrantzitsuenen laburpena jaso dugu. Seigarren eta azken atalean, Udalaren antolaketa eta barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorio eta aholkuak biltzen dira, arloz arlo.

Udaleko langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

II. CABANILLASKO UDALA**II.1. DATU OROKORRAK**

Cabanillas Tuterako Merindadean dagoen udal bat da; 35,74 km² azalera du eta 1.490 biztanle zituen 2012ko abenduaren 31n.

Udalak ondoko entitateetan hartzen du parte:

- San Frantzisko Xabierkoa Egoitzaren Mankomunitatea
- Erriberako Mankomunitatea.
- Hegoaldeko Kirol Mankomunitatea.
- Eder Partzuergoa.
- Cabanillas-Fustiñana fazeria.

Gainera, aipatu beharra dago Cabanillas Errege Bardeako gozamen-kidea dela.

2012ko ekitaldia ixtean, Udalaren funtsezko datu ekonomikoak honako hauek ziren:

Entitatea	Kopurua (eurotan)		Langileak, 2012-12-31n
	Aitortutako betebeharrak	Aitortutako eskubideak	
Udala	1.506.687	1.688.580	11

2012rako onetsitako plantillaren arabera, Udalak zortzi lanpostu dauzka. Horiei gehitu beharko litzaieke obretarako brigadako hiru peoi, 2012ko abenduaren 31n Udalarentzat lan egiten zutenak.

Honakoak dira Udalak ematen dituen zerbitzu publikoak eta haien kudeaketa-formula:

Udal zerbitzuak	Udala	Zerbitzu-kontratua	Mankomunitatea/Partzuergoa
Bake Epaitegiko Erregistro Zibila	X		
Segurtasuna eta Babes Zibila	X		
Oinarrizko gizarte-zerbitzua			X
0-3 urteko haur eskola		X	
Etxebizitzak zaharberritzeko bulegoa			X
Hilerria	X		
Liburutegia	X		
Zahar-etxea			X
Etxez etxeko arreta zerbitzua			X
Gizarte Lankidetzako proiektuak	X		
Hirigintza	X		
Hiri hondakinak			X
Kale garbiketa			X
Kiroldegia		X	
Igerilekuak		X	
Futbol zelaia	X		
WIFI publikoa	X		
Gizarte Etxea	X		

II.2. ARAUBIDE JURIDIKOA

Udalari aplikatzekoa zaion araubide juridikoa honako hauek osatzen dute:

Uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa.

Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, toki araubidearen oinarriak arautzen dituena.

Martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea, Nafarroako toki ogasunei buruzkoa.

Nafarroako Toki Administrazioarentzako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu egiturari eta 3.000 biztanletik beherako lurralde esparrua duten toki entitateentzako Kontabilitate Bakuneko Instrukzioa onesteari buruzko 1998ko irailaren 21eko 270/1998, 271/1998 eta 273/1998 foru dekretuak, hurrenez hurren.

Onetsita dauden 2012ko aurrekontuaren betetze-oinarriak eta ordenantzak.

Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea, ekainaren 9koa, otsailaren 14ko 1/2007 Foru Legeak, 6/1990 Foru Legea toki-kontratazioari dagozkionetan aldatzen duenak, ezarritako berezitasunekin.

Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duena, bai eta haiek garatzeko xedapenak ere.

Ekainaren 11ko 12/2010 Foru Legea, defizit publikoa murrizteko neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitatean moldatzen dituena.

Abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legea, lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzkoa.

Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, diru-laguntzei buruzkoa.

Apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraukortasunari buruzkoa.

20/2012 Errege Lege-dekretua, uztailaren 13koa, aurrekontuen egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna bultzatzeko neurriei buruzkoa.

Abenduaren 28ko 27/2012 Foru Legea, zeinaren bidez Nafarroako Foru Komunitatean neurriak hartzen baitira aurrekontu-oreka bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko.

III. HELBURUA ETA NORAINOKOA

Jasotako eskariak betez eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Cabanillasko Udalaren 2012ko ekitaldiko kontu orokorraren arauzkotasunari buruzko fiskalizazioa egin dugu.

Txostenaren helburua da honako hauei buruzko gure iritzia adieraztea:

- Ea Cabanillasko Udalaren 2012ko ekitaldiko kontu orokorrak irudi zehatza erakusten duen alderdi esanguratsu guztietan, hots, ondareari, gastu eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta 2012ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian egindako eragiketen emaitzei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraikiz.

- Udalak 2012an izandako jarduerari aplikatzekoa zaion legediaren betetze-maila.

- Udalaren finantza-egoera 2012ko abenduaren 31n.

Txosten honek hartzen duen eremua Udalaren 2012ko ekitaldiko kontu orokorra da. Kontu horretan, finantzen egoera-orri hauek sartzen dira, besteak beste:

- Erakundearen aurrekontu-betetzearen egoera-orria.

- Ekitaldiko aurrekontu-emaitzaren eta entitatearen diruzaintza-gerakinaren egoera-orria.

- Entitatearen egoeraren balantzea eta galeren eta irabazien kontua.

- Kontu orokorraren eranskinak: esate baterako, zorraren egoera-orria eta kontu-hartzaitzaren txostena.

Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren

auditoriari buruzko printzipioei eta araei jarraituz eta azterlan honen helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautapropa edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz egin da lan hau, laginen teknika edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa aplikatuz, besteren artean. Zehazki, aurrekontuen eta finantza egoera-orrien edukia eta koherentzia aztertu dira, bai eta aplikatutako oinarrizko prozedurak ere; ebaluatu dira, halaber, antolaketa, kontabilitate eta barne kontroleko alderdi nabarmenak. Horri dagokionez, aipatu behar dugu eztabaida teknikoaren aldia soilik Udaleko alkatearekin egin zela.

Finantza-egoeraren 2008tik 2012ra bitarteko bilakaera aztertzeke, Ganbera honek gisa horretako lanetan erabiltzen dituen magnitude, ratio eta adierazle berberak aplikatu dira.

IV. IRITZIA

Gure lanaren emaitza gisa, honako iritzi hau atera dugu:

IV.1. KONTU OROKORRA

Udalaren egoera-balantzean ez da jasotzen ibilgetuaren balioa, zeinak zero balioa baitu. Ez dago loturarik kontabilitateko egoera-orri horren eta inbertsioekin lotutako aurrekontu-eragiketen artean.

Inbentarioaren azken eguneratzea 2011koa da, eta haren arabera ibilgetuaren guztizko balioa 17.755.658 eurokoa da. 2012an ez da ez aldatu, ez kudeatu.

Arestian aipatutako salbuespenen ondorioak alde batera utzita, Udalaren 2012ko ekitaldiko Kontu Orokorrak fidelki islatzen ditu alderdirik behinenetan gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta egindako eragiketen emaitzak. Halaber, behar bezala interpretatu eta ulertzeko beharrezko informazioa biltzen du, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.

IV.2. LEGEZKOTASUNA

Udalan dagoen lan giroa bertako eguneroko kudeaketak larriki baldintzatuta dago, eta horren ondorioz idazkari eta kontu-hartzailea denak eragozpen-ohar ugari egiten ditu kudeaketa horren hainbat alderdi direla eta.

Eragozpen-txosten horiek eta gure azterketa ikusita, ondorioztatzen dugu Udalaren jarduera ekonomiko eta finantzarioa, oro har, ez dela garatzen legezkotasun printzipioari jarraituz.

Horri dagokionez, aipatu beharra dago ezen, aurkitutako ez-betetzeei dagokienez, oro har, kopuru handietakoak izan ez diren arren, horietako batzuetatik, zuzentzera eta erregulatzerara jotzen ez badira, kontabilitate-erantzukizunak erator daitezkeela.

IV.3. FINANTZA-EGOERA 2012ko ABENDUAREN 31n

Cabanillasko Udalaren hasierako aurrekontua 1,75 milioi eurokoa da. 22.700 euroko aldaketa bat egin ondoren (funtsean, gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina sartzearen ondorioz), behin betiko aurreikuspenak 1,77 milioi eurokoak izatera iristen dira.

Aitortutako betebeharrak 1,51 milioi eurokoak dira, eta ehuneko 11 egin dute behera 2011koekin alderatuta. Betebehar horien betetzearen portzentajea ehuneko 85ekoa da (inbertsioak ehuneko 31 betetzearen ondorioz), eta ordainketen portzentajea, berriz, ehuneko 95ekoa da.

Aitortutako eskubideak 1,69 milioi eurokoak dira, 2011koak baino ehuneko sei gutxiago. Honi dagokionez, betetze- eta kobratze-portzentajeak ehuneko 95 eta ehuneko 93koak izan dira, hurrenez hurren.

Gastuko 100 eurotik euro bakoitza helburu hauetarako erabili da eta honakoen bidez finantzatu da:

Gastuaren izaera	Zenbatekoa	Finantzabidea	Zenbatekoa
Langileak	31	Zerga bidezko diru-sarrerak	33
Bestelako gastu arruntak	62	Transferentziak	46
Inbertsioak	4	Ondare bidezko diru-sarrerak	21
Finantza-zama	3		
Guztira	100	Guztira	100

Udalak bere funtzionamendu-gastuak eta zorraren finantza-zama diru-sarrera arruntekin finantzatu zituen, eta aurrezki garbia 211.847 eurokoa izatera iritsi zen.

Aurrekontu-emaizta doituak 181.893 euroko balio positiboa erakusten du.

Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina 235.875 eurokoa da. Kopuru hori guztizkoarekin bat dator, ez baitago baliabide atxikiak dituen gerakinik. Hori dela eta, Udalak badauka hurrengo ekitaldiko gastuak finantzatzeko ahalmen likidoa.

Udalaren 2012ko zorpetze-maila ehuneko 2,66koa da; zorpetze-muga ehuneko 15,46koa da; horregatik, bada, zor berria hartzeko gaitasuna badu.

Udalaren zor bizia 543.834 eurokoa da. Kopuru hori erakundearen diru-sarrera arrunt guztien ehuneko 33 da, eta portzentaje hori 2013an zor berriak egiteko dagoen legezko mugatik – ehuneko 110– behera dago.

1. eranskinean erakusten dugu zein izan den 2008-2012 aldiko aurrekontu-likidazioan lortu diren adierazle nagusien bilakaera. Bertan, agertzeraz ematen da Udalak aztertutako aldi hori duela eta egoera ekonomiko-finantzario saneatua daukala.

Aurrekontu-egonkortasunari dagokionez, 2012an, Udalak finantza-iraunkortasunaren printzipioa bete zuen, zeren eta zor bizia sortutako diru-sarrera arrunt ehuneko 33 baita; izan ere, zenbateko hori araudian 2013an kreditu-eragiketa berriak ituntzeko ezarritako ehuneko 110etik behera dago. Bestalde, Udalak, alde aurretik, araudiak adierazitako doikuntzak egin gabe, finantza-ahalmenik badu, zeren eta 212.447 euroko superabita lortu baitu, hurrengo taulan (eurotan) erakusten den bezala:

Adierazlea	Zenbatekoa
Diru-sarrera ez-finantzarioak	1.688.580
Gastu ez-finantzarioak	1.476.133
Aurrekontu-saldo ez-finantzarioa (finantzatzeko ahalmena)	212.447

Horrenbestez, Cabanillasko Udalak, 2012an, egoera saneatua dauka, zeren eta baliabide arruntak sortu baititu gastu arruntak finantzatu ondoren, zorpetzeko ahalmena baitu eta hurrengo ekitaldietan balizko gastuak egiteko diruzaintza-gerakina baitu.

Ikuspuntu ekonomikotik hain positiboa den eta egungo krisi garaietan hain ezohikoa den jokaleku horrek talka egiten du azalduko legedia, oro har, ez aplikatzearekin, eta hori, neurri handi batean, gaur egun Udaleko eguneroko jardueran dagoen lan-giro zailaren emaitza da. Hori dela eta, Ganbera honek uste du dauden lan arazoei ahal den bezain laster konponbidea eman behar zaiela, entitatearen jardura normaltasunez gara dadin.

V. UDALAREN 2012KO KONTU OROKORRAREN LABURPENA

Ondoren, Udalaren 2012ko Kontu Orokorrak jasotzen dituen finantzen egoera-orrien laburpen bat ematen dugu.

V.1. AURREKONTU-BETETZEAREN EGOERA-ORRIA 2012ko EKITALDIA

Diru-sarrerak kapituluz kapitulu

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikus- pena	Aitortutako eskubideak	Bete- takoa (%)	Kobrantsak	Kobran- tzak (%)	Kobrantszeko dagoena
1. Zuzeneko zergak	346.100	0	346.100	375.589	109	338.923	90	36.666
2. Zeharkako zergak	20.000	0	20.000	11.096	55	8.652	78	2.444
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	146.800	0	146.800	163.634	111	159.122	97	4.512
4. Transferentzia arruntak	724.000	0	724.000	738.445	102	735.241	99,6	3.204
5. Ondare bidezko diru- sarrerak	352.900	0	352.900	363.187	103	317.336	87	45.851
7. Kapital-transferentziak	161.780	6.000	167.780	36.629	22	16.193	44	20.436
8. Finantza-aktiboak	0	16.700	16.700	0	-	-	-	-
Guztira	1.751.580	22.700	1.774.280	1.688.580	95	1.575.467	93	113.113

Gastuak kapituluz kapitulu

Deskribapena	Hasierako aurreikus- pena	Aldaketak	Behin betiko aurreikus- pena	Aitortutako betebeharrak	Bete- takoa (%)	Ordain- ketak	Ordain- ketak (%)	Ordaintzeko dagoena
1. Langile-gastuak	479.500	8.500	488.000	461.003	94	451.386	98	9.617
2. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	922.000	8.700	930.700	852.912	92	796.780	93	56.529
3. Finantza-gastuak	14.900	0	14.900	13.384	90	13.384	100	0
4. Transferentzia arruntak	109.580	-17.300	92.280	82.250	89	82.039	99,7	213
6. Inbertsio errealak	195.500	22.800	218.300	66.584	30	63.921	96	2.662
9. Finantza-pasiboak	30.100	0	30.100	30.554	102	30.554	100	0
Guztira	1.751.580	22.700	1.774.280	1.506.687	85	1.438.064	95	69.021

V.2. AURREKONTUAREN EMAITZA. 2012ko EKITALDIA

Kontzeptua	2011ko ekitaldia	2012ko ekitaldia
Aitortutako eskubide garbiak	1.796.925	1.688.580
Aitortutako betebeharrak garbiak	1.702.021	1.506.687
Aurrekontu-emaiza	94.904	181.893
Doikuntzak		
Finantzaketaren desbideratze positiboa G.F.A.	-	-
Finantzaketaren desbideratze negatiboa G.F.A.	-	-
Diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako gastuak	13.292	-
Aurrekontu-emaiza doituia	108.196	181.893

V.3. DIRUZAINZTA-GERAKINAREN EGOERA-ORRIA 2012ko ABENDUAREN 31n

Kontzeptua	2011ko ekitaldia	2012ko ekitaldia
+ Kobratzeko dauden eskubideak	130.006	143.430
+ Diru-sarreraren aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	96.506	113.113
+ Diru-sarreraren aurrekontua: Itxitako ekitaldia	125.890	149.206
+ Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	8.813	10.957
- Bilketa zaileko eskubideak	-101.203	-129.846
- Ordaintzeko dauden betebeharrak	145.401	110.322
+ Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	109.008	68.792
+ Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	207	-
+ Aurrekontuz kanpoko gastuak	36.186	41.531
+ Diruzaintzako funts likidoak	118.175	202.767
+ Finantzaketa-desbideratze metatu negatiboak	-	-
=Diruzaintza-gerakina, guztira	102.780	235.875
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	-	-
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	-	-
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	102.780	235.875

V.4. 2012ko ABENDUAREN 31ko EGOERA-BALANTZEA

Aktiboa

Deskribapena	2011	2012
Ibilgetua	-	-
1 Ibilgetu materiala	-	-
2 Ibilgetu ez-materiala	-	-
3 Erabilera orokorrerako azpiegitura eta ondasunak	-	-
4 Herri-ondasunak	-	-
5 Finantza-ibilgetua	-	-
Zirkulatzaila	349.384	476.043
7 Itxitako aurrekontuetako eta aurrekontuez kanpoko zordunak	134.703	160.164
8 Aurrekontuko zordunak	96.506	113.113
9 Finantza-kontuak	118.175	202.766
Aktiboa, guztira	349.384	476.043

Pasiboa

Deskribapena	2011	2012
Funts berekiak	-370.404	-178.113
1 Ondarea eta erreserbak	-480.753	-416.405
2 Entregatutako ondasun eta eskubideak	-	-
3 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa	110.349	238.292
Epe luzeko zorrak	574.387	543.834
4 Jesapenak, maileguak eta fidantzak, jasotako gordailuak	574.387	543.834
Epe laburreko zorrak	145.401	110.322
5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	36.393	41.531
6 Aurrekontuko hartzekodunak	109.008	68.791
Pasiboa, guztira	349.384	476.043

V.5. GALEREN ETA IRABAZIEN KONTUA 2012ko ABENDUAREN 31n

Ekitaldiko emaitza arruntak

Deskribapena	2011	2012	Deskribapena	2011	2012
61 Langile-gastuak	193.477	461.003	70 Salmentak	142.958	163.634
62 Finantza-gastuak	9.428	13.384	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	353.232	363.187
64 Lanak, hornidurak eta kanpo zerbitzuak	31.164	852.911	72 Produkzioari eta inportazioari lotutako tributuak	294.120	298.778
67 Transferentzia arruntak	77.803	82.251	73 Errentaren eta ondarearen gaineko zerga arruntak	81.782	84.336
			76 Transferentzia arruntak	750.350	738.445
			77 Kapitalaren gaineko zergak	3.339	3.571
800 Ekitaldiaren emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	-	-	800 Ekitaldiaren emaitza arrunta (saldo zorduna)	113.909	242.402
D84 Bajak eta itxitako aurrekontuen deuseztapenak	3.658	4.317	H84 Altak eta itxitako aurrekontuen preskripzioak	98	207
D89 Ekitaldiaren emaitza ekonomiko negatiboa	-	-	H89 Ekitaldiaren emaitza ekonomiko positiboa	110.349	238.292

VI. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Ondoren, kudeaketa arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, Udalaren antolaketa-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetzeko, gure iritzian Udalak bere egin behar dituen ondorio eta aholku nagusiak azalduko ditugu.

VI.1. ALDERDI OROKORRAK

Udalan dagoen lan-giroak, zeinak 2012an eta 2013an 91 eragozpen-ohar eragin baititu, barneko antolamendu- eta komunikazio-arazoak sartzen dizkie langileei, eta zailtzen du batzuetan idazkari eta kontu-hartzailea denak esleituta dauzkan eginkizunak betetzea, zeren eta ez baititu ezagutzen Udalan gertatu diren eta ondorio ekonomikoak dauzkaten egitate batzuk.

Udalaren barne-antolamenduari dagokionez, aipatu beharra dago ezen Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legeak soilik idazkaritzaren, kontu-hartzailetzaren eta kontabilitatearen arloetako berariazko eginkizunak garatzen dituela, baina ez gainerako administrazio-langileenak, zeinak Udalaren eskumenekoak baitira.

Udalaren egoera-balantzean, ez dago jasota ibilgetuaren balioa, zeinak zero balioa baitu, zeren eta hasiera batean ez baitziren datuak sartu kontabilitate-aplikazioan, eta ez zen, ezta ere, loturarik ezarri horri buruz erregistratutako eragiketen eta aipatutako kontabilitateko egoera-orriaren artean.

Inbentarioaren azken eguneratzea 2011koa da, eta haren arabera ibilgetuaren guztizko balioa 17.755.658 eurokoa da. 2012an ez da ez aldatu, ez kudeatu.

Egiaztatu dugu ekitaldiko mugimenduen kontabilizatzea, Gizarte Segurantzarekiko, Ogasunarekiko –PFEZaren ondoriozko atxikipenengatik– eta Montepioarekiko zorrari dagozkion aurrekontuz kanpoko kontuetan, modu arrazoizko batean, bat datorrela egindako deskontuekin. Hala eta guztiz ere, kontu horien hasierako saldoak (4.793, 10.550 eta 3.794 euro, hurrenez hurren) ez dute behar den euskarrik.

Likidatzeko dauden eskubideen itzulketarekin lotutako kontuak oker kontabilizatuta dagoen 6.320 euroko saldoa du.

Aplikatzeko dauden ordainketak erregistratzeko kontuak hasierako 5.151 euroko saldoa du, baina haren jarraipenik ez da egiten.

Bai alkateak, bai idazkari eta kontu-hartzailea denak, banakako sinadura elektronikoa daukate eragiketak internet bidez egiteko. Horri gehitu behar zaio ezen alkateak ez dituela eragiketak pertsonalki sinatzen; izan ere, eginkizun hori administrari batek betetzen du, hain zuzen ere kontabilitateaz arduratzen denak, alkateak hala aginduta. Idazkariak ez du ordainketetarako baimena alde aurretik sinatzen; halere, egin ondoren konprobatzen ditu.

Ez dira jasota gelditzen banku-kontuetako funtsak berdinkatzeko egin diren kontaktak; hala eta guztiz ere, egiaztatu da saldoak zuzenak direla.

Udalan dagoen eskudiruaren kutxak, mila euroko batez besteko saldoa duenak, ez ditu behar diren segurtasun bitartekoak.

Diruzaintzako egoera-orrian eta balantzean, finantza-entitate bateko kontu itxi bat ageri da, bai eta diru-kopuru txikia izan eta mugimendurik ez daukan beste bat ere, zeinak finantza-gastuak besterik ez baitu ematen.

Hona gure gomendioak:

- *Udalbatzak definitzea lanpostu bakoitzaren eginkizunak eta eginkizun horiek dakarten lan-zama, eta ezarritakoa betetzea, berrmatze aldera, alde batetik Udalak zuzen funtzionatuko duela eta, bestetik, langile guztiek, beren eginkizunen esparruan, dauzkaten eskubide eta betebeharrak errespetua, araudi indarduna kontuan hartuta.*

- *Inbentarioa urtero eguneratzea, eta hartan Udalaren ondasun eta eskubide guztien mugimenduak sartzea.*

- *Egoerari buruzko balantzean ibilgetuari alta ematea, inbentarioan ageri den balioarekin, hura eguneratu ondoren.*

- *Gastuen 6. kapituluko aurrekontu-eragiketen eta balantzearen arteko lotura egitea.*

- *Aurreko orrialdean aipatutako aurrekontuz kanpoko kontuen saldoa aztertzea eta, kasua bada, hura erregularizatzea.*

- *Aplikatzeko dauden ordainketen kontuaren jarraipen egokia egitea eta ordainketa horien ondoriozko eragiketak kontabilizatzea.*

- *Ordainketetarako prozedura egokia definitzea, eginkizunen segregazio zuzena inplikatzeko duena, eta sinadura elektronikoa mankomunatua erabiltzea funtsak erabili ahal izateko.*

- *Udaletxean dagoen eskudiruko kontua behar bezala babestea.*

- *Banku funtsak direla eta aldizka egiten diren kontaktak jasota uztea.*

- *Kontabilitateko egoera-orrietatik kentzea jada operatiboak ez diren finantza-kontuen erreferentziak, eta erabiltzen ez diren kontuak kitatzea.*

VI.2. LANGILE-GASTUAK

Kapitulu honetan aitortutako betebeharrak 461.003 eurokoak dira, 2011n baino ehuneko zazpi gutxiago; alegia, 2012ko ekitaldian sortutako gastu guztien ehuneko 31. Hona kontuak banakatuta (eurotan), 2011koekin alderatuta:

Artikulua	2011	2012	2012/2011: aldea (%)
Goi-karguak	21.483	18.531	-14
Funtzionarioak	54.272	49.933	-8
Lan-kontratadun langileak	253.086	220.782	-13
Bestelako langileak	3.000	3.000	-
Kuotak, prestazioak eta gizarte-gastuak	161.637	168.757	4
Guztira	493.477	461.003	-7

Udaleko plantilla organikoa 2012ko urtarrilean onetsi zen hasiera batez. Haren edukia ez da araudian ezarritakoa; izan ere, lanpostuen zerrenda izendun bat jasotzen du, non aipatzen baita lanpostu horiek nola dauden beteta, baina lanpostu horien ezaugarriak, hornitzeko modua eta abarrekoak aipatu gabe. 2012ko abenduaren 31n, 11 pertsonak egiten zuten lan Udalean. Hona xehetasunak:

Langile mota	Lanpostuak
Funtzionarioak	2
Administrazio-kontratupekoak	2
Aldi baterako lan-kontratudunak	7
Guztira	11

Honakoak dira aldi baterako lan-kontratudunak: ofizial administrari bat, obren arduradun bat, ureztatzaile bat, etxezain bat eta obren brigadako hiru pertsona. Administrazio kontratadunak, berriz, honakoak: liburuzain bat eta idazkaria, zeinak kontu-hartzailletza eta diruzaintza eginkizunak esleituta baitaizka. Funtzionarioak hauek dira: ofizial administrari bat eta aguazil bat.

Aldi baterako lan-kontratadunetan, batzuek lau urteko antzintasuna gainditu dute.

Langile-espeditentek graduari, antzintasunari, zenbait osagarritan eragina duten familia-inguruabarrei eta abarrei buruzko informazioa falta dute.

Nominak aholkularitza-enpresa batek egiten ditu, eta idazkariak ez ditu aurrez esku hartzen, banaketa-oharretan adierazten duen bezala eta arau indardunetan ezarrita dagoen bezala.

Gastu horiek aztertuta ondorioztatzen da, oro har, ordaindutako ordainsariak aritutako lanposturako ezarritakoak direla, egindako atxikpenak egokiak direla eta langile-gastuak behar bezala kontabilizatuta daudela. Halere, honako salbuespenak daude:

- Udaleko plantillako langileen eta zenbaitetan kontratadun langileen aparteko orduen kobrantza –funtsean jaietan egiten dituztenena– 13.154 eurokoa da 2012an. Kobrantza horiek ez dira nominetan jasotzen eta, horrenbestez, ez zaie atxikipenik egiten.

Aparteko orduak justifikatzeko prozedura honakoa da: obren arduradunak txosten bat egiten du, jaien kasuan, non langilearen izenak eguna eta eguneko prezioa jasotzen den; ez da jasota ageri zenbat ordutan lan egin den. Gainerako kasuetan, txosten horretan lan egindako orduak ageri dira, bai eta ordu bakoitzeko prezioa ere (ez eguneko prezioa). Horri dagokionez, idazkariak eragozpen-oharrak egin izan ditu, justifikazio-prozedura hori hobetzeko beharri buruz.

- Pertsona batek lanaldi-luzapenaren osagarria kobratzen du; horrenbestez, aparteko orduak kobratzea bateraezina da aplikatzekoa den araudiarekin.

- Obren arduradunak 2002an Udalean lan egiten zuen. Urte hartan, peoi gisa kontratatu zuten, Enpleguko Institutu Nazionalak egindako hautapen-prozedura egoki baten bitartez.

Kontratu hori amaituta, 2003an zuzenean kontratatu zen berriz ere, alkatetzaren dekretu baten bidez, obren arduradun gisa. Kontratu horrek gaur arte iraun du, eta eraikuntzaren hitzarmenaren arabera da.

2012an ordaintzen zaizkion lansariak hitzarmen horretakoak dira, gehi hitzarmen horretan jasota ez dagoen osagarri bat, hilean 257,29 gordinekoa. Ez dago haren onespina oinarritzen duen dokumentaziorik, idazkariak horri buruz egindako eragozpen-oharretan adierazi duenez.

Halaber, hirurteko baten parekoa den antzintasuna ordaintzen zaio, nahiz eta hitzarmen horretan kontzeptu hori ez den ageri.

- Lan administratiboak egiten dituen funtzionarioari 2012an graduari dagokion zenbatekoa ordaindu zitzaion, nahiz eta espeditentean ageri den dokumentazioaren arabera, bi graduri dagokien zenbatekoa jaso beharko lukeen 2011ko abenduaren 27tik. Era berean, haren espeditentean ez dago inongo agiririk 2012tik jasotzen zuen familia-laguntzaren oinarri gisa.

Inguruabar hori ere aipatu izan du idazkariak bere txostenetan. Bigarren zenbateko hori nabarmen txikiagoa da langileak jaso ez duena baino.

- Zenbait lansari-kontzeptu atxikipenik gabekotzat jasotzen dira. Funtsean, kitatze-agiriei dagozkie, eta 5.954 euro egiten dute. Halakoak ez dira 190. ereduan sartzen (atxikipenen laburpena eta konturako diru-sarrerak, PFEZa dela eta) kasuko atalean.

Aipatu beharra dago Udaleko langileek ez zutela 2012ko abenduko aparteko soldata kobratu, Aurrekontu-oreka bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretuak ezarri bezala.

Aurkitutako gabezia horiek guztiak Udaleko arduradunei jakinarazi zaizkie, eta haiek izapideak hasi dituzte haiei konponbidea emateko.

Hona gure gomendioak:

- *Plantilla organikoa egin eta aurkeztea arau indardunetan ezarritakoaren arabera.*
- *Idazkari eta kontu-hartzailea denak langile-gastuak aurrez kontu-hartzea, eta horretarako behar den informazio guztia edukitzea.*
- *Aparteko orduak behar bezala justifikatzea, haiek egiaztatzeko behar den informazio guztia emanaz, eta kontzeptu horri dagozkion ordainsariak nominetan sartzea.*
- *Ez ordaintzea aparteko orduengatiko zenbatekoa, baldin eta lanaldi-luzapenaren osagarria jasotzen ari baldin bada.*
- *Nominetan aurkitutako akatsak erregularizatzea, langile bakoitzak dagozkion ordainsariak jaso ditzan eta behar diren atxikipenak egin dakizkion, aplikatzekoa den araudiari jarraituz.*
- *Langileei ematen zaien lansari osagarri oro justifikatzea eta egoki onestea.*
- *Aldi baterako langileen hautapena berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipio oinarritukoak errespetatuz egitea.*
- *190. ereduan sartzea langileek jasotako errenta salbuetsi guztiak.*
- *Plantillako lanpostu hutsen egoera eta kontratazioak egitea komeni den aztertzea.*

VI.3. ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK

Gastu arrunten eta zerbitzuen gastuak 852.911 milioi eurokoak izan dira 2012an, eta haien ehuneko 92 bete da. Gastu horiek gastu guztien ehuneko 57 izan dira 2012an, eta ehuneko zortzi jaitsi dira 2011koen aldean. Honakoak dira gastu hori osatzen duten azpi-kontzeptuak:

Azpi-kontzeptua	Aitortutako betebeharrak (2011)	Aitortutako betebeharrak (2012)	2012/2011: aldea (%)	(eurotan)
				2. kapituluan aitortutako betebeharrak guztien gainean (%)
Jaiak	181.834	140.746	-23	16
Energia elektrikoa; ureztaketarako igotzea	77.506	88.577	14	10
Udal eraikinen eta haurtzaindegia garbiketa	83.528	80.818	-3	9
Otik 3 urtera bitarteko ikastetxerako hezitzaileen kontrata	68.424	71.482	4	8
Tuterako ur hornidura	72.398	69.234	-4	8
Argiteria publikoa	48.236	47.543	-1	6
Tausteko eta Ribaforadako ubideko ur-kanona	28.839	29.704	3	3
Kiroldegia kontserbazioa	14.567	17.444	20	2

2012ko gastuen ehuneko 46ko langin bat aztertu dugu. Honakoek osatzen dute:

(eurotan)

Azpi-kontzeptua	Aitortutako betebeharrak (2012)	2. kapituluan aitortutako betebeharrak guztien gainean (%)
Jaiak	140.746	16
Energia elektrikoa; ureztaketarako igotzea	88.577	10
Udal eraikinen eta haurtzaindegia- garbiketa	80.818	9
Tuterako ur hornidura	69.234	8
Notarioak, abokatuak, epaitegiak	13.175	2

Halaber, eraikin publikoen garbiketaren 2012ko esleipena aztertu da. Honakoak dira esleipen horren datu garrantzitsuenak, eurotan adieraziak:

Deskribapena	Kontratu- mota	Prozedura	Eskaintzak	Lizitazioaren zenbatekoa (BEZik gabe)	Esleipenaren zenbatekoa (BEZik gabe)	2012an betetako zenbatekoa (BEZarekin)
Eraikin publikoen garbiketa	Laguntza	Irekia, eskaintza onenarentzat	6	276.000	271.656	80.818

Egindako azterketan, egiaztatu da gastuak behar diren fakturekin justifikatuta daudela, zuzen kontabilizatu direla eta aplikatzekoa den araudia arrazoiz errespetatu dela. Hala ere honakoa adierazi nahi genuke:

- Eraikin publikoen garbiketa kontratatzeke espedientearen izapidetzean ez zen kontuan hartu zenbatekoa Europako atalasetik gorakoa zela, eta iragarkia ez zen Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratu.

- Eraikin publikoen garbiketarako kontratuaren esleipena bera gertatu eta bost hilabetera argitaratu zen kontratazio-atarian.

- Jailetako gastuan zenbait orkestren kontratazioa sartzen da. Kontratazio-proposamenak aurrekontu bat zekarren, zeinak, banaka, ez baitzuen gainditzen 15.000 euroko gastua ordezkari bakoitzeko. Halere, dena batera hartuta, 45.000 euro baino gehiago ziren; horrenbestez, idazkariak bere txostenetan dio prozedura negoziatua erabil zitekeela. Kontratazioa zuzenean egin zen.

- Txarangen gastuari dagokionez, kontratazioen zenbatekoak txikiak dira eta ez daude beti zuzen formalizatutako fakturetan oinarrituta.

Hona gure gomendioak:

- *Kontuan izatea kontraturako kalkulatu den guztizko kopurua kontratazio-espeditentek izapidetzeko, eta aplikatzekoa den araudia betetzea Europako atalasea gainditzen baldin bada.*

- *Kontratuen esleipenak aplikatzekoa den araudian ezarritako epeetan argitaratzea.*

- *Udalari emandako zerbitzuak justifikatzen dituzten fakturak egoki egin daitezela exijitzea.*

VI.4. INBERTSIOETAKO GASTUAK

2012an inbertsioetan egindako gastuak 66.584 eurokoak izan ziren; ehuneko 30eko betetze-maila izan zuten behin betiko aurreikuspenekin alderatuta; horrek 2012ko gastu guztien ehuneko lau egiten du. 2011. urtearen aldean, ehuneko 58 jaitsi da.

Honakoak dira 2012ko inbertsio aipagarrienak eta haien gastua, eurotan adieraziak:

Inbertsioa	2012ko gastua
Hurtzaindegiko erreformak (proiektua, obren zuzendaritza eta obrak)	19.141
San Pascual sakanaren garbiketa	17.249
Erraldoiak	8.607
Zikoinen begiratokia	6.144

2012an esleitutako honako kontratazio-espeditentak aztertu ditugu:

Deskribapena	Kontratu-mota	Prozedura	Eskaintzak	Lizitazioaren zenbatekoa (BEZik gabe)	Esleipenaren zenbatekoa (BEZik gabe)	2012an betetako zenbatekoa eurotan (BEZik gabe)
Hurtzaindegia erreformatzeko obrak	Obrak	Publizitaterik gabe negoziatua, eskaintza onenarentzat	1*	14.732	14.732	14.732
San Pascual sakanaren garbiketa	Obrak	Publizitaterik gabe negoziatua, eskaintza onenarentzat	9	20.652	13.822	13.822

(*) Zortzi enpresa gonbidatu ziren, baina bakarrik aurkeztu zuen eskaintza.

Egindako lanetik ondorioztatzen da ezen, oro har, espeditentak aplikatzekoak diren kontratuei buruzko legeen arabera izapidetu direla eta gastuak zuzen kontabilizatu direla.

VI.5. TRANSFERENTZIEN ONDORIOZKO GASTUAK

Transferentziengatikoko gastuak –guztiak arruntak dira– 82.251 euro izan dira 2012an, eta ehuneko 92ko betetze-maila izan dute. Gastu horiek gastu guztien ehuneko 5,5 izan dira, eta ehuneko 5,7 egin dute gora 2011koen aldean.

Honakoak dira 2012an transferentzia arrunten hartzaile nagusiak:

	Aitortutako betebeharrak (2011)	Aitortutako betebeharrak (2012)	2012/2011: aldea (%)	4. kapituluaren aitortutako betebeharrak guztien gainean (%)
Oinarrizko gizarte-zerbitzua	24.943	25.679	3	31
Zaharren egoitza mankomunatua	18.880	15.424	-18	19
Kultur entitateak	4.466	9.300	108	11
Kirol entitateak	10.090	8.450	-16	10
GKEak	7.930	6.030	-24	7
Kirol mankomunitatea.	4.241	4.255	0,3	5

Oinarrizko gizarte zerbitzuari, zaharren egoitzari eta kirol entitateei dagozkien gastuak aztertu dira. Aitortutako betebeharrak guztien ehuneko 60 egiten dute. Egindako azterketatik ondorioztatzen da ezen, oro har, gastu horien izapidetzea eta kontabilizatzeari egokiak izan direla; halere, alderdi hauek aipatu nahi genituzke:

- Zaharren egoitzaren ardura duen mankomunitateari buruzko eta oinarrizko gizarte zerbitzuarekin lotutakoaren atal txiki bati buruzko dokumentazioaren euskarri formalean ez dira behar diren sinadurak ageri. Zaharren egoitzari dagokionez, idazkariaren eragozpen-ohar bat badago, non eskatzen baitu dokumentu horiek behar bezala diligentzia daitezela eta haiei buruzko informazioa handiagoa izan dadila.

• Kirol entitateentzako diru-laguntzari dagokionez, haiei buruzko ordenantza bat badago. Eskarien balorazio bat egiten da, baina ematen diren diru-laguntzak ez dira horretarako eraturako batzordeak egindako balorazioaren araberrakoak, eta ez dagoz beti bat amaieran kontabilizatzen denarekin.

Hona gure gomendioak:

- *Eskatzea gastu horien euskarri diren dokumentuak behar bezala formalizatuta egon daitezela, haien esku-hartzea eta onespena hobetze aldera.*
- *Aurkeztutako eskarien balorazioa kontuan izatea laguntzak emateko, eta zenbatekoei dagozkien laguntzak ordaintzea.*

VI.6. ZERGA BIDEZKO DIRU-SARRERAK

2012an aitortutako zerga bidezko eskubideek 386.685 euro egiten dute. Guztizkoaren ehuneko 23 egiten dute eta ehuneko bi egin dute gora 2011koen aldean. Betetze-maila eta kobrantza-maila, ehuneko 105 eta ehuneko 90 dira, hurrenez hurren. Diru-sarrera horiek honela banatzen dira eurotan, kapituluz kapitulu:

Kontzeptua	Aitortutako eskubideak (2011)	Aitortutako eskubideak (2012)	2012/2011: aldea (%)
Zuzeneko zergak	347.781	375.589	8
Zeharkako zergak	31.460	11.096	-65
Guztira	379.241	386.685	2

Ondoren, zergaren araberrako bilakaeraren xehetasunak ematen ditugu:

	Aitortutako eskubideak (2011)	Aitortutako eskubideak (2012)	2012/2011: aldea (%)
Hiri-lurraren gaineko kontribuzioa	187.391	211.067	13
Landa-lurraren gaineko kontribuzioa	10.493	10.818	3
Ibilgailuak	81.782	84.336	3
Lurren balio-gehikuntza	3.339	3.571	7
JEZ	64.776	65.797	2
EIOZ	31.460	11.096	-65
Guztira	379.241	386.685	2

Ikusten den bezala, hiri-kontribuzioaren bidezko diru-sarrerak dira gehien handitzen direnak (ehuneko 13), tasek gora egitearen ondorioz eta birzatatze baten ondorioz; izan ere, azken horrek berarekin ekarri zuen nabarmentzeko moduko igoera bat zergadun batek ordaindu beharreko kuotan (2011n 818 eurokoa izatetik 2012an 17.971 eurokoa izatera pasa zen). Igoera handi horren aldean, nabarmentzekoa da EIOZak ehuneko 65 egin duela behera.

Udalak aplikatutako tasak, 2011koen aldean ehuneko 3,1 gora egin zutenak, Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legeak jasotzen duen tasa-tarte ertain-altuan daude, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala:

Zerga	Udala	2/1995 Foru Legea
Hiri-lurraren gaineko kontribuzioa	0,33	0,10 - 0,50
Landa-lurraren gaineko kontribuzioa	1,4	1 - 1,4
Lurren balio-gehikuntza	2,91	2tik 3,8ra
Gaurkotzearen koefizientea	11,99	8 - 20
Zerga-tasa	4	2 - 5
EIOZ		

Kontusail hauen lagin baten gainean egindako azterketatik gastuen izapidetzea eta kontabilizatzea ongi egina izan dela ondorioztatzen da. Halere honakoa aipatu nahi genuke:

- Udalak azken urteetan jarraitutako jokabidea izan da ez bidaltzea agentzia exekutibora borondatezko aldiari kobratu ez diren likidazioak, eta ez eskatzea ez errekarria ez beranduntza-interesak halakoak eskatzeko modukoak diren zorren kasuan, idazkariak irregulartasun horiei buruz egindako txostenak gorabehera. Horrek berarekin ekarri zuen 2003-2009 aldiari dagozkion 56.370 euroko zorrak preskribitzea.

Horri dagokionez, adierazi beharra dago 2014ko otsailean izapideak hasi dira Geserlokali preskribitu ez diren zor ordaindu gabeei buruzko informazioa igortzeko, behar diren diligenziak egin ditzan.

- Hiri-kontribuzioko kuotaren salbuespen bat badago lurzati baten kasuan, urtean 800 euro sorraraziko lukeena. Ez dago inguruabar horren justifikaziorik.

- Idazkariaren eragozpen-ohar batzuk eta Udalak kontratatutako arkitektoaren txosten batzuk badaude, non adierazten baita zenbait gabezia eta irregulartasun badaudela EIOZa izapidetzeko prozeduran. Espedienteak aztertzerakoan egiaztatu ahal izan ditugu halakoak. Ondoren, maizen agertzen direnak aipatuko ditugu:

a) Obrak hasi ziren kasuko lizentziaren eskaririk gabe, idazkari eta kontu-hartzaile denari eta arkitektoari horri buruzko informazioa eman gabe eta hirigintza-ikuskapenik egin gabe, baita babes bereziko eremuetan eta eremu urbanizagarrietan ere.

b) Obra handi batzuetan ez dago arkitektoaren ez proiekturik, ez txostenik, partikularrarengandik horri buruzko informaziorik jaso ez delako.

Hona gure gomendioak:

- *Zergen berankortasuna kudeatzeko eta ordaintzeko dauden zor gehiago preskribitu ez daitezzen hasitako izapideekin jarraitzea, arau indardunak kontuan hartuta.*

- *Aipatutako lurzatiaren kuota-salbuespena behar bezala justifikatzea.*

- *Behar diren plusbalio guztiak likidatzea, haien zenbatekoa zein den ere, eta haiek ez preskribitzeko behar den espedientea izapidetzea.*

- *EIOZa izapidetzeko prozedura bera jarraitzea kasu guztietan, arau indarduna aplikatuz eta horretarako egokientzat jotzen diren langileen parte-hartzearekin*

VI.7. TASAK, PREZIO PUBLIKOAK ETA BESTE DIRU-SARRERA BATZUK

2012an kapitulu honetan aitortutako eskubideak 163.634 eurokoak dira. Diru-sarrera guztien ehuneko 10 egiten dute eta haien betetze-maila eta kobrantza-maila, ehuneko 111 eta ehuneko 97 dira, hurrenez hurren. 2011koen aldean, ehuneko 14 egin dute gora, funtsean diru-sarrera batzuetan tasak ehuneko 3,1 igo direlako.

Ondoren, kapitulu honetako kontzeptu aipagarrienei dagozkien zenbatekoak erakusten ditugu, eurotan adieraziak:

Kontzeptua	Aitortutako eskubideak (2011)	Aitortutako eskubideak (2012)	2012/2011: aldea (%)
Ur-hornidura	121.767	126.226	4
Aprobetxamendu bereziak: Telefónica, Iberdrola	11.617	23.775	105
Kultur Asteko sarrerak	3.384	3.898	15
Salmenta ibiltaria	3.199	3.259	2
Guztira	139.967	157.158	12

Bistan denez, kontzeptu guztiek gutxi-asko gora egin dute. Diru-sarrera aipagarrienak ur-horniduraren bidez lortutakoak izan dira: ehuneko lau egin dute gora 2011koekin alderatuta.

Diru-sarreraren hauen lagin bat aztertuta, egiaztatu dugu euskarri zuzena dutela eta zuzen kontabilizatuta daudela, aplikatzekoa den araudiaren arabera.

VI.8. BESTELAKO DIRU-SARRERAK

Diru-sarrera hauek, osorik hartuta, 1,14 milioi eurokoak dira; ehuneko 91ko betetze-maila izan dute, eta ondoko taulan adierazten dira kopuruak eta horien bilakaera:

Kontzeptua	(eurotan)		
	Aitortutako eskubideak (2011)	Aitortutako eskubideak (2012)	2012/2011: aldea (%)
Transferentzia arruntak	750.350	738.445	-2
Ondare bidezko diru-sarrerak	353.233	363.187	3
Kapital-transferentziak	102.125	36.629	-64
Guztira	1.205.708	1.138.261	-6

Tributuz besteko diru-sarrera hauek ehuneko sei egin dute behera 2011koekin alderatuta, funtsean jasotako kapital-transferentziek behera egitearen eraginez.

Diru-sarreraren lagin baten gainean azterketa egin ondoren, oro har, egoki izapidetu eta kontabilizatu direla egiaztatu dugu. Hala eta guztiz ere, honako alderdiak nabarmendu behar ditugu:

- Herri-lurzatien eta ondareko lurzatien esleipena arautzen duten ordenantzak, bai eta belarren aprobetxamenduari buruzkoak ere, zaharkituta daude eta ez dira toki administrazioari aplikatzekoa zaion araudiaren arabekoak, idazkariak bere txostenetan aipatu duen bezala.

- Cabanillasko eskualde batean ihintzatze bidezko ureztaketa dela-eta lortutako diru-sarrerak ez dituzte estaltzen Udalari zerbitzu hori emateak eragiten dion gastua, Osoko Bilkuraren akta batean adierazi bezala, erabiltzaile batzuen jokabide desegokiak direla eta. Aipatu beharra dago Udala horri buruzko neurri batzuk ezartzen hasia dela.

- Kirol instalazioak hirugarren bati errentan emateak sortutako diru-sarrerak 2007an sortu eta kontabilizatu dira, urte horretan sinatu baitzen kontratua, baina geroztik deuseztatzen joan dira, preskribitzen utzi ondoren. Ez dago jasota Udalak horri buruzko erabakirik hartu izana. 2012ko zenbatekoa 1.856 eurokoa da eta 2007koaren antzekoa da.

Aurrekoari gehitu beharra zaio Udalak eta esleipen-hartzaileak izenpetutako hitzarmen bat badagoela, non zehazten baita funtzionamendu- eta mantentze-gastuak esleipen-hartzaileak ordainduko zituela. Hala eta guztiz ere, idazkariak bere txostenetan aditzera eman duen bezala, Udalak kontzeptu horri dagozkion gastuak hartu ditu bere gain, eta ondasun arrunten eta zerbitzuen 2. kapituluan kontabilizatu ditu. 2012an, 17.444 euro egiten dute.

Zerbitzu hori emateak dakartzan galerak ikusita, Udala gaur egun kontratu eta hitzarmen horren baldintzak birnegoziatzen ari da.

- Egiaztatu da ehiza barrutia Cabanillasko Ehiztarien Elkarteari errentan eman zaiola 2008tik aurrera. Kontratua 2012an sinatu zen, idazkariak behin eta berriz eskatu ondoren Udaleko Osoko Bilkurak 2008an erabakitakoa bete zedila.

Kontratu horren sinadurarekin bat, orrietako baldintza batzuk aldatu dira, besteak beste errentaren ordainketari dagokionez -1.500 euro dira-; izan ere, ezartzen da barrutiaren mantentze-gastuak direla-eta kopuru hori egiten duten fakturak aurkeztuta egingen dela. Txosten hau idazteko garaian, halako fakturarik ez dago jasota.

- Belarren aprobetxamenduari dagozkion diru-sarreraren espedientean ez dago jasota Fazeriako Batzarraren likidaziorik; izan ere, batzar hori da haren kudeaketaz arduratzen dena, eta likidazio hori da hura osatzen duten hiru udalen arteko diru-sarrerak banatzeko oinarria. Horri dagokionez, gure lana egiten genuen bitartean, Batzarrari 2012ko likidazio hori eskatu diogu, eta haren kopurua bat dator kontabilizatutakoarekin.

Hona gure gomendioak:

- *Herri-lurzatien eta ondare-lurzatien esleipenari buruzko ordenantzak eta belarren aprobetxamenduari buruzkoak eguneratzea, aplikatzekoa den araudi indarduna kontuan hartuta.*
- *Ihinzatze bidezko ureztaketaren funtzionamenduaren gaineko kontrol neurriak hartzen jarraitzea eta haiek eraginkor bihurtzea, behar ez diren gastuak saiheste aldera.*
- *Kirol instalazioen esleipen-hartzailearekin izenpetutako kontratua eta hitzarmenak betetzea, eta hartan ezarritako kopurua kobratzea, eta Udalak bere gain ez hartzea ez dagozkion gastuak.*
- *Kobranta eskubideren bat deuseztatu behar baldin bada, araudian ezarritako prozeduraren arabera egitea.*
- *Ehiza barrutia errentan emateari dagozkion diru-sarrerren likidazioa egitea.*
- *Fazeriako Batzarrari bere jarduerari buruzko urteko likidazioa eskatzea eta hura kasuko espedientearen artxibatzea, kontabilizatutako diru-sarrerren euskarri-dokumentu gisa.*

VI.9. HIRIGINTZA

Udalak hirigintzaren gainean egindako kudeaketa kontratupeko arkitekto baten bidez egin du. Horrek 17.125 euroko gastua eragin dio 2012an.

Udalaren Hirigintza Plana 2013ko ekainean onetsi zen hasiera batez, eta gaur egun behin betiko onespena falta da.

Udalak ez du lurzoruaren udal ondarearen erregistroa eratu, ez eta hirigintza-hitzarmenen erregistroa ere.

Udalak 2012an hitzarmen bat sinatu zuen, hirigintza-hitzarmentzat har litekeena, VI.6 atalean aipatu bezala kontribuzioaren zenbatekoa nabarmen igo zitzaion zergadunarekin.

Hitzarmen horren klausula batean ezartzen zen Udalak diru-laguntza bat emanen ziola garatu beharreko jarduerarekin zerikusia izan zezakeen Udalaren edozein zerga, tasa edo arbitrioren zenbatekoaren berdina, kopuru hori hiri kontribuzioaren barrenean zegoela jota. Gure ustez, klausula hori ez da legediaren araberakoa, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeko 23.4 artikuluan ezarri bezala. Horri dagokionez, esan beharra dago zerga likidatu egin dela, baina zergadunak ez duela hura ordaindu, eta Udalak partikularrari ez diola inongo zenbatekorik transferitu, ez eta kasuko zenbatekoa erreklamatu ere. Halaber, Udala gaur egun hitzarmen hori aldatzeko fasean dago.

Hona gure gomendioak:

- *Udalaren plan orokorra egokitzea araudi indardunari, ahal den bezain laster.*
- *Lurzoruaren udal ondarea eratzea eta kudeatzea Udalaren gainerako ondasunetatik bereizirik, sarrerak eta irteerak erregistratuz, bai lursailenak bai eskudiruarenak, eta hura indarreko araudian ezarritako xedeetarako erabiltzea.*
- *Hirigintza-hitzarmenen erregistroa eratzea.*
- *Aipatutako hitzarmena aldatzea, bertatik kenduz aipatutako klausula, non esaten baita Udalak emanen duela partikular horrek ordaindu beharreko udal zerga, tasa edo arbitrioren kopuruaren berdina den diru-laguntza bat.*

Txosten hau auditore Karen Moreno Orduña andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2014ko ekainaren 18an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas.

ERANSKINA: 2008-2012 ALDIKO AURREKONTU-LIKIDAZIOAREN ADIERAZLE NAGUSIEN BILAKAERA

Adierazlea	2008	2009	2010	2011	2012	2012/2008 aldea %,	2012/2011: aldea (%)
Diru-sarrerak, guztira	1.729.739	2.874.562	2.399.804	1.796.925	1.688.580	-2	-6
Gastuak, guztira	1.770.508	2.535.042	2.463.578	1.702.021	1.506.687	-15	-11
Diru-sarrera arruntak	1.625.071	1.698.986	1.676.479	1.625.781	1.651.951	2	2
Gastu arruntak	1.501.938	1.587.155	1.466.488	1.511.872	1.409.549	-6	-7
Zerga bidezko diru-sarrerak	537.271	597.796	566.498	522.196	550.319	2	5
Funtzionamendu-gastuak	1.470.046	1.564.305	1.457.153	1.502.444	1.396.165	-5	-7
Inbertsio garbia	215.467	557.132	957.720	155.522	66.584	-69	-57
Transferentzia arruntekiko mendekotasuna, ehunekotan	%41	%27	%32	%42	%44	7	5
Aurrezki gordina	155.025	134.681	219.327	123.337	255.785	65	107
Finantza-zama	58.482	56.292	39.789	40.036	43.938	-25	10
Aurrezki garbia	96.543	78.389	179.537	83.301	211.847	119	154
Aurrekontu-emaiza doitua	-40.769	339.520	-63.774	108.195	181.893	545	68
Itundutako maileguak	--	--	--	65.000	--	--	--
Zor bizia	602.217	568.775	538.321	574.387	543.834	-10	-5
Zor bizia/diru-sarrera arruntak ehunekotan	%37	%33	%32	%35	%33	-11	-7
Zor bizia biztanleko	408	384	362	385	365	-10	-5
Zorpetze-maila (%)	3,6	3,31	2,37	2,46	2,66	-26	8
Zorpetze-ahalmena (%)	5,94	4,62	10,71	5,13	12,8	115	150
Zorpetze-muga (%)	9,54	7,93	13,08	7,59	15,46	62	104
Diruzaintza-gerakina	-209.976	128.432	34.357	102.780	235.875	212	129

CABANILLASKO UDALARI BURUZKO2012ko TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

Udal honi buruzko fiskalizazioa dela-eta Kontuen Ganberak egin duen behin-behineko txostena jaso ondoren, Udal honek honako alderdiak zehaztu nahi ditu:

– Eginbeharren banaketa:

Ekainaren 23an, Langileen Batzordeak administrazio-langileei dagozkien eginbeharren banaketa eginen du, eta banaketa hori gero Osoko Bilkurari aurkeztuko dio. Udal honetako idazkaria bajaran egon denez, ezin izan da lehenago horrelakorik egin. Hura ordezkatzan duen pertsona badagoenez, *orain eginen da hori*.

– Nominatik kanpoko aparteko orduak kobratzea, atxikipenik egin gabe:

Nominatik kanpoko aparteko orduen kobrantza (atxikipenik egin gabe), dela-eta egindako kudeaketari konponbidea eman zitzaion 2013an. Jaiak direla-eta plantillako langileei ordaindutako aparteko orduak kasuko nominetan sartu dira eta, horrenbestez, dagozkien atxikipenak egin zaizkie. *Irizpide hori da aurrerantzean aplikatzen jarraituko dena*.

– Aparteko orduak justifikatzeko prozedura:

Obren arduradunak lan egindako orduak justifikatzeko erabili duen inprimakia agian ez zen egokia. Hala eta guztiz ere jaietan emandako zerbitzuen ordainketa urte hauetan egun bakoitzeko prezio bat ordainduta egin da, zeren eta jai egunetan lan egindako orduak asko aldatzen baitira egun batetik bestera, egun bakoitzerako jai-programan aurreikusitako jardueren arabera. Hasiera batean erabilitako inprimakian, horrenbestez, egun bakoitzeko prezioa ageri zen, nahiz eta laukitxo bat ere bazegoen orduen kopurua eta ordu bakoitzeko prezioa idazteko.

Nominatik kanpoko aparteko orduak buruzko puntuan argitu dudan bezala, *ordu horien ordainketa jada 2013an zuzendu zen, eta haiek langile bakoitzeko nominetan sartu ziren*.

– Obren arduradunari ordaintzen zaion osagarria, formalki onetsita ez dagoena:

Osagarri hori aurreko alkatetzak eta langileak adostu zuten, eta ia Udalarentzat lanean hasi zenetik kobratu izan du, zeren eta lanpostuak askotan eskatzen baitu ohiko orduetatik kanpo lan egitea (bereziki matxurengatik eta abarreatatik). Hala eta guztiz ere, ez dago dokumentaziorik haren kobrantza formalki jasotzen duenik. Egoera hori erregularizatzeko, alkatetza honek Osoko Bilkurari aurkeztu behar dio osagarri hori onesteko proposamena, erregulatuta gera dadin eta langileak etorkizunean arazorik izan ez dezan hura kobratzeko. *Osagarri horren onespena Langileen Batzordeak datorren ekainaren 23an eginen duen bileran aztertuko da*.

– Obren arduradunak kobratutako antzintasuna, eraikuntzaren sektoreko hitzarmenean jasota ez dagoena:

Nahiz eta egia izan eraikuntzaren egungo hitzarmenean antzintasuna ez dagoela jasota, Nafarroako eraikuntzaren eta herri-lanen industriarako Hitzarmen Kolektiboan, 2008ko irailaren 19ko 115. NAO-n argitaratutakoan, honakoa esaten da 21. artikuluan:

1996ko urriaren 18an sinatu zen (azaroaren 21eko "Estatuko Aldizkari Ofiziala") Eraikuntza Sektoreko Akordio Nazionalak, antzintasunaren kontzeptu ekonomikoaren gainean, bere 5. artikuluko a) letran aurreikusten duenaren babesean ateratzen diren zenbatekoek "ad personam" motako

ordainsari osagarri gisa segituko dute aldatu gabe eta denbora aldetik ez dute mugarik izanen, esan nahi baita, ez dutela inolako aldaketarik jasanen ezein kasutan ere, eta ukitutako langileak enpresarekin duen kontratua amaitzearekin batera bukatuko direla zenbateko horiek. "Ad personam" motako ordainsari osagarria soldataren hartu-agiri ofizialetan azalduko da, "antzinatasun finkatua" izenpean.

Artikulu hori berriz ere errepikatu zen Nafarroako eraikuntzaren eta herri-lanen industriaren sektorerako hitzarmen kolektiboan, 2016ra arte indarra duenean.

2013ko martxoaren 15eko 52. NAO n argitaratu zen hitzarmen hori.

Ukitutako langilearen nominan, antzinatasun hori antzinatasun finkatu gisa ageri da, nomina horietan konprobatu daitekeen bezala. Horrenbestez, alkatetza honek uste du zuzen ordaintzen zaiola.

– Ofizial administrariak familia laguntza kobratzea:

Egiazki, ofizial administraria, funtzionarioa dena, ez zegokion familia laguntza bat kobratzen ari zen. Halaber, langile horrek beste gradu bat kobratzen hasi behar zuen 2011-12-27an, baina ez zitzaion aplikatu. 2013ko martxoan, haren nominatik familia laguntza kendu zen, eta 2014ko otsailaren 26ko erabakiaz haren egoera erregularizatzeari ekin zitzaion, 2011-12-27tik aurrerako eraginekin 3. gradua aitortuz, eta 2013-10-27tik aurrerako eraginekin, berriz, hirugarren bosturtekoa. Eta nominan erregularizatze hori aplikatu ondoren langileak gehiago kobratzen du. *Horrenbestez, egoera hori erregularizatuta dago.*

– Aparteko orduengatik kobratzea lanaldi-luzapenaren osagarriarekin bateraezina izatea:

Langile honek aparteko orduengatik jasotzen dituen lansariak soilik jaietan lan egindakoei dagozkie. Alkatetza honek ulertzen du jaietan lan egindako orduen kopurua desproporzionatua dela lanaldi-luzapenari dagokion osagarriarengatik kobratzen denarekin alderatuta. Horixe bera adierazi izan dituzte hitz egin dudan sindikatuek eta langileak berak. Gainera epai batzuk aurkeztu izan dizkigute, aparteko orduak kobratzearen aldekoak, baldin eta aparteko ordu horiek desproporzionatuak badira lanaldi-luzapenaren osagarriarekin (Nafarroako Administrazio Auzitegiaren 1998ko irailaren 17ko eta urriaren 1eko epaiak, Erice Echegarai txostengilea zela; edo Kataluniako Auzitegi Nagusiaren 2004ko azaroaren 30eko epaia).

Hala eta guztiz ere, gaia Langileen Batzordearen ekainaren 23ko bileran aztertuko da, lanaldi-luzapenaren osagarriaren orde bestea bat jartzeko; eta aldaketa egiten ez bada, langileak aginduzkoa den baimena izanen du baldin eta aurretik aparteko orduak egiteko aginduzkoa den ebazpena jasotzen badu.

– Ordaindu gabeko zergen kudeaketa

Gaur egun Geserlocali bidaltzen ari zaizkio ordaindu gabe dauden ordainagiriak, behin errolda bakoitzeko borondatezko ordainketarako epea iragan denean.

– Lurzati bat hiri-kontribuzioa ordaintzetik salbuetsita egotea:

Gai hau gaur egun Alfonso Zuazu abokatuaren eskuetan jarri da. Hura Nasuvinsa enpresako abokatuarekin hitz egiten ari da egoera hau erregularizatu ahal izateko.

– EIOZaren prozedura eta izapidetzea:

Gaur egun azpimarra berezia jartzen ari da obren zaintzan. Legea ahal den zorroztasun handienarekin aplikatzeko ahaleginak egingen dira, batez ere proiektua behar duten obren kasuan. Hala eta guztiz ere, badakigu pertsona batzuek jarraituko dutela obrak egiten Udalari behar den baimena eskatu gabe, eta Udalak ez duela jakinen obra horiek egiten ari direnik.

– Kirol instalazioen errentamenduaren ondoriozko diru-sarrerak kobratu gabe egotea:

EIN enpresa kontratatu da, eta bera arduratzen ari da Kiroldegiaren eta Udalaren arteko hitzarmen berri bat egiteaz, zeren eta gaur egungo inguruabarrak ez baitira egun indarrean dagoen hitzarmena egin zen garaiko inguruabar berak. Jasota utzi beharra dago gaur egun Kiroldegia Udalari errenta bat ordaintzetik urrun dagoela, eta Udala bera dela batzuetan Kiroldegiko gastuak ordaindu behar izaten dituen, Kiroldegiak haiei ezin dienean aurre egin. Ulertu beharra dago udal kiroldegi bat dela, zerbitzua herriko biztanleei ematen diena.

– Ehiza barrutia errentan ematearen ondoriozko diru-sarrerak kobratu gabe egotea:

Orain dela urte batzuk ahozko akordio batera iritsi ginen Ehiztarien Elkartearekin, Udalari ehiza barrutiko errenta gisa ordaindu behar duen kopurua inbertitu dadin ehiza barruti horretan hobekuntzak egiteko. Hori dela eta, Ehiztarien Elkartea da ehiza barrutia osatzen duten lurretan egiten diren gastuei dagozkien ordainagiriak ordaintzeaz arduratzen dena.

Udalak Ehiztarien Elkarteari eskatu izan dio Udalari aurkez diezazkiola 2012an eta 2013an egindako gastuen fakturak, egiaztatze aldera egiazki gastu horiek dagozkiola haiekin izenpetutako hitzarmenean ageri den 1.500 euroko errentari.

– Nasuvinsarekiko hitzarmena, zergetatik salbuetsita egoteari buruzkoa:

Lehen aipatu dudan bezala, gure abokatu Alfonso Zuazu jauna Nasuvinsako abokatuarekin hitz egiten hasia da gai honi konponbidea emateko.

Aurrez azaldu dudan guztia antzemandako gabezia nagusiei erantzuteko da. Hala eta guztiz ere, Kontuen Ganberak Udalari emandako gomendio nagusiei dagokienez, gure gain hartzen dugu haietan antzemandako arazo guztiei konponbidea emateko konpromisoa.

Cabanillasen, 2014ko ekainaren 5ean.

Alkatea.

CABANILLASKO UDALAK AURKEZTU DITUEN ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMAN DIEN ERANTZUNA

Cabanillasko Udalak aurkeztutako alegazioak aztertuta, ohar horiek txostenari buruzko azalpentzat hartu ditugu, ez baitute haren edukia aldatzen. Txostenari erantsi zaizkio eta txostena behin betikotzat jo dugu. Hala eta guztiz ere, honako alderdiak azpimarratu nahi ditugu:

1º. Bosgarren atalari dagokionez, Ganbera honek berresten du ez dela egokia obren arduradunari antzintasuna ordaintzea.

2º. Zazpigarren atalaren kasuan, aparteko orduak eta lanaldi-luzapenaren osagarria aldi berean kobratzea dela-eta antzemandako gabeziari konponbidea emateari buruz Udalak adierazitakoari dagokionez, gure iritzia da legezatasunarekin bat datorrena dela lanaldi-luzapenaren osagarriaren ordeztu bat jartzea proposatzen duena.

Iruñean 2014ko ekainaren 18an.

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas.

